



Arartekoaren 2019S-2226-16 Ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio aukera eman dezan etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimia izaera gizarte-txostenaren bidez egiaztatzeko. Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko araudiaren arabera, bestelako dokumentazioa aurkeztuta egiazta daiteke etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimia izaera.

Aurrekariak

Arartekoak ofiziozko jarduna abiarazi zuen etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimek diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko betekizunen interpretazioaren inguruan.

Jardun horretan, 2016ko azaroaren 21ean, prestazio ekonomikoak eskuratzeko betekizunak beste modu batean interpretatu behar diren inguruko zenbait gogoeta helarazi zizkion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Izan ere, genero-indarkeriaren biktimia diren emakumeei eragiten dieten kexak izapidetzeko orduan egindako azterketaren harira, jakin genuen era murriztailean interpretatzen ari dela aplikatzekoa den araudia. Lanbidek exijitzen du, babes-agindua eman bitartean, genero-indarkeria pairatu izana egiazta dadila, salatzailea genero-indarkeriaren biktimia dela adierazten duten zantzuak daudela dioen ebazpen judizialaren edo Fiskaltzaren txostenaren kopia aurkeztuta. Arartekoak, esku-hartze horretan, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimek diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko betekizunak egiaztatzeko orduan **araudia interpretatzeko proposamen onuragarriagoa** jaso zuen. *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017 izeneko agirian Arartekoak, 28. proposamenean, adierazi zuen: Familia- eta genero-indarkeriaren biktimaren izaera interesdunak aurkezten dituen dokumentuen bidez egiaztatzeko aukera aztertzea, hau da, Gizarte Zerbitzuen txostenen bidez edo Lanbidek beste herri-administrazio batzuei eskatzen dien txostenen bidez.*

Abenduaren 23ko Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko 18/2008 Legeak, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazkeraren 16.b) artikuluan araubide malguago bat aurreikusten du familia-indarkeria jasan duten pertsonen prestazioa eskuratu ahal izateko. Lege hori genero indarkeria jasan duten emakumeei ere ezarri behar zaiela ulertu behar da. Prestazioa eskuratzeko aurreko lege-aurreikuspena aplikatuz, nahikoa da urtebete lehenago erroldatuta egotearekin [eta bizikidetzaren unitatea osatzearekin (9.2.b artikulua)].

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen du eta dekretu horren 29.c) artikulua aurreikusten du 5.2 b) artikuluan aurreikusitako tratu txarrak





daudela dagokion ebazpen judzialaren kopiaren bidez edo salaketa jarri duen pertsona genero indarkeriaren biktima dela adierazten duten zantzuak daudela dion Fiskaltzaren txostenaren kopiaren bidez egiaztatu beharko dela, babes agindua ematen den bitartean.

Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeek egindako kexa batzuetan adierazi dutenez, ezin zuten aurkeztu dokumentazio hori, baina gizarte-zerbitzuen arreta jasotzen ari ziren, zenbaitetan genero-indarkeriaren biktimeztako ostatu-baliabideetan. Hala, emakume horiek arazo horri erantzuteko bideratutako baliabideak baliatzen ari ziren. Kexa-espediteren batean (1721/2015/QC zenbakikoa), (...)k egindakoan, Etxebide-euskal etxebizitza zerbitzuaren babes ofizialeko pisu bat eman diete alokairuan; pisu horiek Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumearen Zerbitzuaren eta Familia Esku-hartze Zerbitzuaren arteko lankidetzari esker eman zaizkie. Gainera, kasu honetan, genero-indarkeriaren biktima egiaztagiria zeukan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) igorritako ziurtagiriaren arabera eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen.

Arartekoak, espediente horietan, Lanbideri adierazi dio beste frogabide batzuen bidez egiaztatu izan zela genero-indarkeriaren biktimaren izaera. Lanbidek, aurreko espedienteen izapideen harira, erakunde honi erantzun dio 147/2010 Dekretuaren 29.1.c) artikuluan xedatutakoa aplikatu duela, baita abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa (Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa) ere.

Halaber, ofiziozko jardun honetan erakunde honi —2018ko abenduaren 14ko txosten bidez— jakinarazi zaion erantzunean, aurreko xedapena aplikatu beharra azpimarratu da, eta gaineratu da: *“Zure idazkian ondo diozun bezala, Lanbiden gure gain hartu genuen araudi berriko proposamenean egokitze jotako arauzko aldaketak egiteko konpromisoa. Lanbidek eutsi egin dio konpromiso horri, halako moduan non Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Lege-proposamen berriari osagarri ekonomiko gehigarri bat ezarri den etxeko indarkeriaren biktimei zuzendua, aintzat hartuta berebiziko ahuldade egoeran daudela. Era berean, Legearen arau-bidezko garapenean aurreikusten da indarkeria egoera horiek egiaztatze bidezko baliabide gisa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostena eskatzea”.*

Gogoetak

1. Erakunde honek adierazi izan duenez, Lanbidek kontuan hartu beharko luke zerbitzu publiko batek emakume bat etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktima dela jo eta zerbitzu espezializatuek arreta eman izana, baldin eta —justifika daitezkeen arrazoiengatik— ez badago indarreko urruntze-agindurik, Fiskaltzaren txostenik edo epai irmorik, etxeko indarkeriaren eta





genero-indarkeriaren biktima izaera modu objektiboan hartu delako gizarte-txostenaren bitartez. Erakunde honek egindako lankidetzeta-eskaerari Lanbidek emandako erantzunean, erakunde horrek adierazi du prest dagoela aukera hori jasotzeko etorkizuneko araudian; erakunde honek bazuen horren berri hizpide dugun ofiziozko jarduna abiarazi zuenean. Bidalitako idazkian, hain zuzen ere, adierazi zen Lanbidek onartu egin zuela etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Erakundeen Arteko Talde Teknikoak adierazitako konpromisoa, hau da, araudia aldatzeko proposamena, etorkizunean genero-indarkeriaren biktima izaera gizarte-txostenaren bidez egiaztatu ahal izateko.

2. Genero-indarkeriaren biktima izaera gizarte-txostenaren bidez egiaztatzeko aukera jaso da araudi sektorialean, hala nola Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren 2006ko urriaren 4ko aginduan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoan, eta 9/2018 Errege Lege-Dekretuan, abuztuaren 3koan, genero-indarkeriaren aurkako Estatuko ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoan. Dekretu horren bidez, areagotu egin dira mota horretako indarkeria jasaten duten biktimek beren egoera egiaztatzeko dituzten mekanismoak. Aurrerantzean, biktima izaera egiaztatu ahal izango dute, ez bakarrik zigor-epai judiziala, babes-agindua edo judizialki erabakitako beste edozein kautelazko neurri nahiz Fiskaltzaren txostena aurkeztuta, baizik eta, halaber, gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen zein genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen txostenaren bitartez ere, are eskubideak edo baliabideak eskuratzeko bidea erregulatzen duten araudi sektorialean jasotako beste titulu batzuk erabilia ere. Gainera, Berdintasunaren Konferentzia Sektoriala apirilean bildu da, eta oniritzia eman die gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen zein genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen txostenei, eta eredu komun eta adostua diseinatu du, administrazioaren aurreko egiaztatze hori Estatu osoan bateratzen duena.

Horrela gauzatu da Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean jasotako xedapena, Istanbulen egina 2011ko maiatzaren 11n, eta Espainiak 2014ko martxoaren 18an berretsia. Tresna horrek indarkeria prebenitzeko eta biktimek babesa eta laguntza emateko zenbait betebeharrak aldarrikatzen ditu, eta, 18. artikuluan, emakumeei babesa eta laguntza emateko neurriek oinarri izan behar dituzten irizpideak zehazten ditu; 4. apartatuan xedatutakoa jasoko dugu, interesgarria baita espediente honen aztergaiari begira: *“La prestación de servicios no debe depender de la voluntad de las víctimas de emprender acciones legales ni de testimoniar contra cualquier autor de delito.”*





Eragile publiko eta sozialek babestu eta legezko tresnek aitortu egiten dute, beraz, genero-indarkeriaren biktima izaera gizarte-txostenaren bidez egiaztatzeko aukera, eta Lanbidek onartu egin du 2016tik. Aitzitik, araudia ez zen aldatu aukera hori aplikatu ahal izateko (eta ordutik ere ez da aldatu), eta, hortaz, Arartekoak, orduko hartan, araudia interpretatzeko proposamena helarazi zuen. **Proposamen hori ez da onartu Lanbidek erakunde honi igorritako txostenean, eta, beraz, honako iradokizun hau bidali behar izan diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.**

3. Aldez aurretik, erakunde honek gogorarazi behar du **Arartekoak bidalitako lankidetzaz-erakunde dagokion epean ez erantzuteak zailago bihurtzen duela erakunde honentzat bere egitekoak betetzea.** Hori dela eta, azpimarratu nahi dugu erakunde honi erantzuteko orduan izandako **atzerapena**; izan ere, lankidetzaz-erakunde 2016ko azaroaren 21ean egin eta errekerimendua 2017ko martxoaren 27an helarazi zen arren, **2018ko abenduaren 14an** igorri da txostena, eskaerari erantzunez. Hori dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 23. artikuluan xedatutakoa gogorarazten dizut: 9.1. artikuluan aipatzen diren erakundeetako organoek lehentasunez eta premiaz bidali behar dituzte eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo argibide guztiak.
4. Ofiziozko jardun hau abiarazi zuen Arartekoak, hain zuzen ere, jotzen zuelako indarrean zegoen lege-esparruak aukera ematen ziela genero-indarkeriaren biktimei prestazioa eskuratzeko, **araudia aldatu arte itxaron behar izan gabe**; horregatik helarazi zen, hain zuzen, egungo lege-esparrua modu onuragarriagoan interpretatzeko eskaera.

147/2010 Dekretuaren 29. artikulua, 1.c) atalean, babes-agindua edo Fiskaltzaren txostena aurkeztea aurreikusten du. Hala ere, artikulua berean, l) atalean, eskatzaileak espedientera gehitu nahi dituen dokumentuen aurkezpena aurreikusi da. Era berean, m) atalean beste dokumentu batzuen aurkezpena aurreikusten da, administrazioak eskatu nahi dituenak, betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera.

Horrela, Lanbidek familia- eta genero-indarkeriaren biktimaren egoera balora dezake, aurkezten diren gizarte-zerbitzuen txostenak aztertu ostean. Horrez gain, arreta ematen dioten herri-administrazioei eskatu ahal die txosten espezifiko bat eta, hori aztertu ostean, familia-indarkeriaren biktimaren izaera egiaztatzen dela jo.

Hasieran adierazi den bezala, 18/2008 Legeak araubide berezi bat aitortzen du familia-indarkeriaren biktimentzat 9.2.b) artikuluan, bizikidetzaz-unitatea arautzean, eta 16. artikuluan, eskubidearen titularrek bete behar dituzten





baldintzak ezartzean. Aurreikuspenen artean, ez da azaltzen baldintza hori egiaztatzeko modua, baina araudiaren garapenean betekizunak egiaztatzeko aurkez daitezkeen dokumentu guztiak adierazi dira, nahiz eta ez den zerrenda itxi bat. Genero-indarkeriaren inguruko beste arazo batzuekin lotutako keax izapidetzean, egiaztatu da, Lanbideko bulegoetatik, 147/2010 Dekretuaren 29. artikuluan aurreikusten diren bestelako dokumentu batzuk eskatu dira, Lanbidek dituen egiaztatzeko ahalmenak gauzatu.

Erakunde honen ustez, lege honen interpretazio sistemikoa egitean, 29.1 artikuluan c) atala l) eta m) atalekin lotzean, honako hau uler daiteke: norbaitek babes-agindua baldin badauka, genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzen du; baina egoera hori interesdunak beste agiri batzuen bidez ere egiaztatu dezake edo Lanbidek beste herri-administrazio batzuei eskatzen dien txostenen bidez. Aukera hori 147/2010 Dekretuaren 29. artikuluan aurreikusten da.

5. Bestalde, legean eta haren arau-garapenean erabilitako terminoak nabarmendu nahi ditu erakunde honek. 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, 9.2.b) eta 16. artikuluetan ezartzen du etxeko indarkeriaren biktimen egoera babestu beharrekoa dela. Lege horrek garatzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2.b) artikuluan ere aipatzen dira etxeko indarkeriaren biktimak. Hala ere, dekretu horren 29.1.c) artikuluan, 5.2 b) artikuluan jasotako kasua egiaztatzeko zer dokumentazio aurkeztu behar den arautzen duenean, xedatzen da hizpide duen egiaztatzea genero-indarkeriaren biktimei dagokiela. Legeak eta dekretuak terminologia ezberdina baliatzen dute, eta, beraz, gogorazi nahi dugu etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimen egoerak ez direla analogoak. Horren inguruan ere hausnartu beharko litzateke hurrengo araudiari begira.
6. Ondorioz, erakunde honi onuragarria iruditzen zaio Lanbideren erabakia, alegia, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izaera egiaztatzeko moduari buruzko egungo legezko xedapena aldatzea.

Nolanahi ere, behin baino gehiagotan adierazi dugunez, Arartekoaren iritziz, **egungo lege-esparruak aukera ematen du etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izaera beste agiri batzuen bitartez egiaztatzeko**, eskaerarekin batera aurkeztekoak diren dokumentuen artean jaso baitira eskatzaileak espedientean txertatu nahi dituen agiriak nahiz administrazioak eska ditzakeenak (147/2010 Dekretuaren 29.1. artikuluko l) eta m) letrak).

Artikulu hori sistematikoki eta logikoki interpretatzeak, bat etorritik hura aplikatu behar den uneko testuinguruarekin eta gizarte-errealitatearekin (Kode Zibilaren





3.1. artikulua) nahiz ordenamendu juridikoaren oinarri diren zuzenbidearen printzipio orokorrekin (Kode Zibilaren 1.4. artikulua), legitimatu egiten du gizarte-txostenaren baliozkotasuna genero-indarkeria egoera egiaztatzeko bitarteko gisa. Aintzat hartu beharra dago Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (40/2015, urriaren 1ekoa) 4.1. artikulua aplikatuz, herri-administrazioek, eskubide indibidualak mugatzen dituzten neurriak hartzeko orduan, edo jarduera bat egiteko betekizun jakin batzuk bete daitezen exijitzeko orduan, proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dutela, eta murrizketa gutxien dakarren neurria aukeratu.

Aipatutako araudia sistematikoki haztatzeko, osotasun organikotzat hartu behar da ordenamendu juridikoa. Horrek bide ematen du Arartekoak proposatutako interpretazioa egiteko, **emaitzarik bidezkoena lortzeko, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimek diru-sarrerak bermatzeko errenta eskura dezaten.**

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izaera gizarte-txostenaren bidez egiaztatzeko aukera eman dadila. Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko araudiaren arabera, bestelako dokumentazioa aurkeztuta egiazta daiteke etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izaera.

